


# ARRASATE

# PRESS

Arrasate 1992ko ekainak 12, 154. zenbakia

ARKOk argitaratua Udalaren laguntzarekin



**JOSE ANTONIO  
PAGOLA**  
Bakerako jarrerren  
mezularia

## Barruko eta kaleetako pintadak

Joseba

**A R R A S A T E  
K I R O L A K**

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



# Gu ere AEDko bazkide gara. Eta zu noizko?



**AED** ELKARTEA

**BAZKIDE IZAN NAHI DUT**

Izen-deiturak .....

Helbidea .....

Etxeko telefonoa .....

Moztu papertxo hau eta helbide honetara bidali:  
AED, Pablo Uranga, 4 etxabea. 20.500 ARRASATE, edo 79 54 46 ifnora. deitu.



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED  
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

## Maketazioa:

Goio Arana

## Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

## Kontabilitatea:

Agutzane Gaintzarain

## Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karnele Zuazubiskar, Jabier  
Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta  
Iñaki Mendiguren

## Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi,  
Joseba Vallés, Karmelo Urizarren, Hankamotz,  
Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon  
Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-  
Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon  
Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan  
Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

## Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian  
adierazitako esanien eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo  
Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan  
egiten da.

# Esperientzia garratza

**B**a zen behin batean sei urte  
betetakoan eskolara hasi zen  
neskatolatxo bat, Maria izene-  
koa.

Poz-pozik zegoen Maria, eskola  
hasteak ia nagusia zela esan nahi  
zuelako. Eta bere ahizpek eta nebek,  
nagusiagoak, ez zioten denbora luzean  
esaterik izango "Umeak isilik egoten  
dira oiloak pisa egin arte", haien  
solasean sartu nahi zuenean.

Eskola berean zegoen hamaika  
urteko bere ahizpa ere. Baina gelaren  
aurrean zegoen ahizpa, nagusiekin, eta  
atzean bera, txikiekin.

Ez zegoen ez haserre neskatila,  
lagun egin bait zituen berarekin batera  
eskolan hasi ziren beste neskatila  
batzuk, eta bat bereziki, Julita, bere  
ondoan eseri zena. Harekin zituen  
kontuak, harekin jolasak.

Eta hala segi zuten gauzak, egun  
batean Julitari zerbait esatean hark  
medailoia pasa zion arte.

Medailoia pasa Julitak! Ezusteko  
samina! Pentsa ezina bere lagun  
kuttunak medailoia pasatzea! Hori  
traizioa!

Bapatean mutututa gelditu zen  
Maria. Eta luzez begiratu zion meta-

lezko medaloia hari. Bere eskua hainba-  
teko biribila zen hura eta irudi ezezagun  
batzu zituen erliebean. Lotuta zeraman  
zinta bat, gorria eta horia.

Bazekien eskolatik irteteko ordurako  
inori pasatzen ez bazion, bera izango  
zela maistrak kastigatuko zuena. Hala  
ere, ez zuen arretarik jarri beste inori  
medailoia pasatzeko. Mariak ez zion  
barkatzen Julitari, ustezko bere laguna-  
ri, medailoi hori pasatzea.

Eskolan sartzean, bai goizean eta  
baita arratsaldean ere, euskaraz  
hitzegiten entzuten zionari ematen zion  
maistrak medailoia, eta irteeran  
zeukanak zigorra zuenez, euskaraz ari  
zen beste lagun bati pasa behar zion,  
zigortua izatea nahi ez zuenak.

Milaka eta milaka dira horrelako  
esperientzia garratza izan duten euskal  
neska-mutikoak, batzu erdaldun  
bihurtuz, bestek euskaldun jarraituz.  
Giza taldeen euskara galtzean ere izan  
dute eraginik jokaera horiek.

Zer gizarte espero daiteke, eskolan  
Komunitate baten hizkuntza zapaltzen  
denean, eta haurrak elkar zelatatzer  
bultzatzen direnean? Nolaz kitatuko  
zaie hainbati orduan egindako kaltea?  
Nola lortu elkar-laguntza?

RUFINA OLASAGASTI

Memesa  
79 42 22



**Zatoz gure  
gazte moda  
ezagutzera**

**Italora Lizentziatua, 5  
Tfnoa: 77 00 81  
ARRASATE**





**gili gili**

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



**DANKART**

Estetika eta ileapaintzaile  
Eskola

M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.  
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 71 80

**"HB eta pertsonaleko politika"  
gutunari erantzuna**

Aipatu gutunak ez zukeen erantzunik ere merezi irakurleengan sortu bide duen harridura eta nahasmendua berbideratzeko ez balitz.

Halere kontestu honetatik, honako argitasun hauek eman nahiko genituzke:

1) Arrasateko Udaletxe baitako pertsonal politika, *Pertsonaleko Komisiotik* sortzen diren proposamenetan oinarrituz eta Komisioan eta bertako Gobernu organoetan hartzen diren erabaki bidez gauzatzen da; bost Alderdi politikoek parte hartzen dute, eta eraberean baita sindikatukoek ere.

2) HBk, Komisio horretan defendatu izan dituen jarrerak, ez dute zerikusirik, inbiriak, langileen arteko desberdintasunak, etabar, areagotzearekin, alderantziz baizik; HBk beti bilatu du pertsonal politika aurrerakoi bat egitea, langileen eskubideak errespetatuko dituena.

3) Gutun horretan ematen direnak gezurrak direla frogatzeko, ondokoa jakinarazi nahi genuke, nahi duenak egia diogula ikus dezan:

- Pertsonalaren ordainsariak ez ditu Gorporazio honek, HBren ez beste talde politiko baten proposamenez, finkatzen.

Hartarako *Balorazio Komite* bat dago, langileen 6 ordezariz + Pertsonal buruaz + Pertsonaleko Lehendakariaraz osatua.

- 1992rako Lan Eskeintza Publikoa, non 9 lanpostu fijo eta 15 denporaldi baterakoak ikusten diren, talde politiko guztiek ahobatez onartua izan da, eta aukeraketa prozesuak, oinarriak, etab. ere bai.

- Pertsonalaren kontratazioak, fijoak edo denporalditarakoak,

arazko printzipio guztiekiko begirune osoz egiten dira; publicitate, aukera berdintasuna, meritua eta gaitasuna. Aukeraketa prozesuak dagokien epaimahaiek burutzen dituzte, ohizkoa izanik epaimahai horietan, Udaletxeaz kanpoko Administrazio edo Erakundeetatik etortzeko kideak egotea. Kontratazioak, beti, Epaimahai kalifikatzaile horrek egindako proposamenetan oinarrituz egiten dira, baina inoiz ere ez HB edo beste edozein talde politikok proposaturik.


- Gorporazio honek, bai praktikatzen duela *Barne Promozioa*. Urruti-rago joan gabe, aurten bertan 7 *Barne Promozio* deialdi daude aurikusita, noski HBren aldeko botuarekin.

4) Luzeegi ez jotzearen, eta bukatu aintzin, prest gaudela adierazi nahi dizuegu, nornahiri eta nonnahi gai honi buruz beharrezkoak izan ditzakeen argitasunak emateko.

Arrasateko Udaletxean ere, HBkook salaketa merke hauen gainetik, aurrera jarraituko dugu, gure herrian eta herritarren alde lanean.


Besterik gabe,

ARRASATEKO UDALETXEKO  
HBKO ZINEGOTZI TALDEA



**ARAMAIO**  
**okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46




**ECUADOR**

Kontzezlifio, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



## Rion egiten ari den naturaren aldeko munduko bileraz zer?



**Jose Luis Olabarrieta**  
(Kooperatibako langilea)

Ondo iruditzen zait natura gordetzeko akordio batera heltzea baina orokorrean uste dut gauza gutxi lortuko dutela.



**Ana Juarez**  
(Ikaslea)

Nire ustez ez dute gauza asko lortuko. Nahiz eta bertan akordioa lortu, denon aldetik behar dugu akordioa, denon arteko akordioa da behar dena.



**Rakel Calleja**  
(Etxekoandrea)

Ez nago oso enteratuta gai horretaz, baina denbora izan dute behintzat zerbait konpontzeko edo akordio batera heltzeko.



**Juan Mari Usandizaga**  
(Langilea)

Berez konferentzia oso ondo ikusten dut baina hor lortuko diren akordioak epe luzerako izango dira eta ez epe laburrerako.



**Antonio Caballero**  
(Langilea)

Nik oso zaila ikusten dut hor zerbait lortzea. Kapitala dutenek eta goian daudenek konpondu beharko dute arazoa. Guk gauza gutxi egin dezakegu.



**Juli Bastardo**  
(Etxekoandrea)

Nire ustez asmoa behintzat ona da baina denbora asko beharko da arazoa konpontzeko, interes asko daude bitartean.



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak .....	45 87 44
------------------------------	----------

### UDALTZAINGOAK

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZAINZAK

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTZAILAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

### GARRAIOAK

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garako Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55

### MONTEARRONGO LIBURUTEGIA

Monterron .....	77 01 05
-----------------	----------



12

## OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Off-eko maitasuna" (7-9.30).
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz.
- Gauetz: Puy, Bergara.

13

## LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Alto! o mi madre dispara" (5-7.30-10)
- Rock kontzertua: *Red Alert* eta *Zakarrak*, Gaztetxean gaueko 10.30etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola.
- Gauetz: Guallar, Bergara.

## Pilota

- Larunbat eta igandean, goizeko hamaiketatik aurrera Iturripeko kiroldegian San Juanetako Torneoaren erdifikale-tako partiduak jokatuko dira, jubenil, alebin eta infantil mailetan. Aipatutako egunetan, erdifikale guztiak jokatzerik ez balego, falta direnak asteartean eta ostegunetan jokatuko lirakeke. Finalak, hilaren 19an jokatuko dira.

14

## IGANDEA

- Zinea: Alai: "Alto! o mi madre dispara" (5-7.30-10)
- Araba Euskaraz, Armentian, autobusak Garibai kalean.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin.
- Gauetz: Guallar, Bergara.

15

## ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Alto! o mi madre dispara" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina.
- Gauetz: Estella, Bergara.

16

## ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Alto! o mi madre dispara" (7-9.30)
- Ameriketako herrietaz ihardunaldiak: Bideo emanaldia, "Amazoniako indioak" Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

17

## ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

18

## OSTEGUNA

- Ameriketako herrietaz ihardunaldiak: Bideo emanaldia, "La selva esmeralda" Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.



## Musika

### • Kontzertua

Ikastolako 25. urteurrena ospatzen dela eta, datorren ekainaren 19an, ostirala, Musikolako polikiroldegian kontzertua izango da. *Danba, Julio Kageta* eta *Suta Garizango* dira parte hartuko duten taldeak. Azken honek, "Hartzak estuturik" diska berria aurkeztuko du.

## Erakusketak

### • Ameriketako herrietaz

Pasa den 9tik eta datorren 19a arte, Ameriketako herriei buruzko ihardunaldien barruan erakusketa bat dago zabalik Monterronen. Mugarik gabe erakundeak antolatzen duen erakusketa honetan, gauza desberdinak ikus daitezke: paneletan historia eta herrien ezaugarriak, kolore eta zuri-beltzeko argazkiak, artesania-zko tresnak, laminak, liburu erakusketa eta bertako musika entzuteko eukera ere izango dugu.



### • Slimming Gimnasioa

Ikasturtearen bukaera dela eta, Slimmin Gimnasioak 91-92 ikasturtean egindako lanaren erakustaldia egingo du: dantzako lehen urratsak, jazz-a eta diskoa. Erakustaldia Musikolako kiroldegian izango da, hilaren 20an, arratsaldeko 7.15etatik 8.15etara bitartean.



## 3. adineko Olimpiadak

### Deba Garaiko herrietatik Aretxabaletara

Datorren larunbatean, ekainaren 13an eta Aretxabaletako kirol-etxean Deba Garaiko Hirugarren adineko olimpiada izango da. Bertan 60 urtetik gorakoek har dezakete parte. Izena aurretik eman beharko da herri bakoitzeko Kultur Etxe, Udaletxe edo kiroldegian. Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara, Oñati, Elgeta eta Antzuolakoei hartuko dute parte.

Ariketa eta kirol desberdinak izango dira, hiru multzotan banatuta, baina ez da beharrezkoa guztietan parte hartzea. Ekintzak arratsaldeko 3etatik aurrera izango dira, 7.30arte gutxigorabehera. Aretxabaletara hurbiltzeko herri bakoitzetik autobusak ipiniko dira.

Jaiari bukaera emateko, 6etatik 7.30etara jaialdia izango da *Saltsamaltza* taldearekin. Antolatzaileek egun honekin 3. adineko pertsonak kirola egitera animatzea dute asmo nagusizat. Ondo pasatzeaz gain, guztiek sari bana jasoko dute.

## Deialdiak

### • Gazte elkartrukea

Arrasate eta Badajozko Al-mendralejo herri artean gazte elkartrukea egingo da. 15-17 urte bitarteko gazteei dago zuzendua. Hogei plazako elkartrukea izango da eta izena emateko Gazteentzako Informazio Bulegora zuzendu edo telefono honetara dei egin dezakezue: 77 00 65.

### • Haur dantzarien eguna

Datorren ekainaren 21ean Haur Dantzarien eguna ospatuko da Arrasatera. Egundor-

tan Arrasatera etorriko diren guztiek bertako etxeetara bazkalduko dute. Egundor zuen etxeetan dantzari txikiak konbidatzea nahi badituzue, AED eta HIRE liburudendan eman dezakezue izena.

### • Euskaldunon Jaia

Euskaldunon Egunkariak antolatuta eta "Eman arnasa Egunkariari" lemapean, hilaren 19an Usurbilen Euskaldunon Jaia burutuko da. Arrasateko Egunkariaren aldeko Batzordeak autobusa antolatu du Usurbilra joan nahi duten guztientzat. Autobusa, beti bezala, Garibai geltokitik aterako da,

goizeko 9.30etan. Izena hartu 700 PTA ordaindu eta txartela eman beharko da eta, Hire, Iturrioz edo AEDn egin daitezke. Izena emateko azken eguna, hilaren 17a izango da, arratsaldeko 6etan.

## Ikastaroa

### • Aeromodelismoa

Ipar-Haize elkarteak aeromodelismo ikastaroa antolatu du. 14 urtetik gorakoek har dezakete parte eta izena emateko Kultur Etxera joan behar da. Matrikula 2.000 pezetakoa izango da.

## Azken orduko zuzenketa

Hamahirugarren orrialdean HIES-aren aurkako jaialdian egindako zozketaren zenbakiak agertzen dira, baina zenbaki horiek ez daude ondo zozketa ez zen behar bezala egin eta. Zenbaki onak azken orduan ekarri zizkiguten, ondorengo hauek:

2 argazki kamara 2.375 zenbakia, Motxila eta keramikazko ontziak 2.063 zenbakia, Puzzle erraldoia eta auto metalikoa 2.822 zenbakia, Udarako 3 kamiseta 1.459, Txamarra bakeroa 0469 zenbakia, Organo elektronikoa 0428 zenbakia, Alkondara bat 0915 zenbakia, Alkondara eta txalekoa 1.127 zenbakia, daratulua 0563 zenbakia eta mendiko botak 1.938 zenbakia.

Sariak jasotzeko, HIESaren aurkako batzorde hiritarrek partaideekin jarri behar da harremanetan.



“ Arrasaten 80 elkarte euskaraz beti. Ez da kanpaina berria. Gizartearen esparru guztietan euskararen erabilera areagotzeko lehen pausua orain ia bi urte eman zen Arrasaten. Hogeitamazortzi elkartek sinatu zuten orduan beren elkarren arteko hartuemanak euskara hutsez egiteko konpromezua. Geroztik, sinatzai-leak bikoiztu egin dira. Badago zer ikasia!”

(Habe Aldizkarian, 1992ko martxoan)

“ Asmo on batzuen adierazpenean gelditzeko arriskua du Euskal Baserrialdeko Plangintzak, eta zoritxarrez, nahiz eta agiri hau prestatzen hainbat eta hainbat teknikari eta bertako zein kanpoko jakintsu aritu den, Planak ez du inolako euskaltasunik, edozein toki eta garaitan ezartzeko moduko ideia soil batzuk ematen ditu, denen gustokoak izan daitezkeenak, baina anbiguitate hori dela eta, praktikan burutzean guztiz ezberdinak izan daitezkeenak, eta hori denuntziatzeko ere heldulekurik uzten ez dutelarik.

(...) Industrigintzarako egin diren planekin konparatuz gero, esaterako berriz ere dakusagu nekazal sektoreak betiko anai txikia eta baztertua izaten segitzen duela, eta Administrazioak egin beharra zuen aurpegi garbitze batez gain, ezer gutxi duela, nahiz eta ordua izan nekazaritzan ere halako agiri bateratu bat izateko.

(Maite Aristegik 1992ko ekainaren Sean)

“ Ez dago akordiorik Acenorren, ez dago akordiorik azpiegituretan, ez dago akordiorik berrindustrializazioan. Zertan dago, orduan, PSOE-PNVren arteko paktuaren birtualitate?”

(Esther Larrañagak El Mundon)

Nolakoa da Ameriketako indigenen egoera?



Indigenen egoera oso desberdina da leku bate-tik bestera. Iparramerikatik hasiaz gero, une honetan 1.700.000 indigena daude, Kanadan %70a gutxi gora behera erreserbetan bizi da eta Estatu Batuetan %30a eta nahiko egoera kezagarrian: %80a langabezian dago, %60ak elikadura arazoak ditu eta alkoholismo tasa ikaragarri handia da, %60koa; gainera, bere buruaz beste egiten duen umeen tasa munduko altuena da.

Iparrameriketako indigenen egoera txarra bada, Hego eta Ertameriketako ez da hobe. Guatemalan, esate baterako, indigenak gehiengoa dira, baina ez daude errekonozituta, ez dute ez aintzinako eskubiderik eta ezta gaur egunekorik ere. Beharbada, esperientzia interesgarriena Ekuadorrekoa izan daiteke: orain bi hilabete 10.000 indigenak Amazonas-etik Quito-rainoko marta burutu zuten, lurren jabetza eta konstituzio aldaketa eskatuz, herrien nortasuna errekonozituko duen konstituzio plurikulturala eskatuz. Konstituzioren aldaketa, hitzez behintzat lortu dute, eta lurraren jabetza eman diete, ez eskatzen zuten guztia, baina bai zati handi bat.

Argi dago, beraz, indigenismoaren egoera ez dela bat konkretua eta tokiaren arabera egoerak oso desberdinak direla. Egoera aldatu egin behar da, baina konturatu beharra dago indigena marginatu gehienak hirugarren munduan bizi direla, estatu marginatuetan, bi marginazio jasaten dituztela.

Garapen ereduak sortu ditu egoera hauek eta gauzak konpontzeko, hori da aldatu beharko litzatekena.

SEBE ZUBIRI

MUGARIK GABE TALDEKO PARTAIDEA.

**Berango**



**Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

**J. M. Heriz**

Konpromezurik gabeko aurrekontuak

Olarte, 30 Tfnoa: 79 77 11. ARRASATE

**ARRASATE PRESS**



**77 05 65**



**PINTURAK eta PAPERZTAPENAK**

Aragoi, 6-3. Esk. ARRASATE Tfnoa: 77 00 39



## Oñati

### • Olakuako jaiak

Datorren ostiralean hasiko dira Olakua auzoan aurten goizko jaiak. Arratsaldeko 7etan kalejira eta txistulariekin hasiko dira jaiak eta 10.30etan *Hator* taldearekin dantzaldia izango da. Larunbatean jarraituko dute ospakizunek: 12.30etan Oñatz dantza taldearen saioa izango da. Arratsaldeko 4etan Mountain Bike froga izango da. Gauean *Kaixo* taldearekin dantzaldia. Igandean mus txapelketa izango da, eta bertan nahi duten guztiak har dezakete parte.

### • Aloña Mendiren batzarra

Aloña Mendi elkarteak batzar orokorra izango du gaur. Bertara hurbiltzen diren kirolzale guztiei urteko kirol egitarauaren berri emango zaie. Arratsaldeko 7etan Iñaki Mugika kazetariak eta baita Real-eko hainbat jokalarik hitzaldi bat eskeiniko die leku berean, hau da, Institutoko areto nagusian.



## Aretxabaleta

### • Kaleko seinaleztapen berria

Azken Gobernu Batzordean kaleetako seinaleztapen berria egiteko 500.000 pezeta erabiltzea erabaki du. 1992ko aurrekontutik hartuko da kopurua. Erabaki hau Udaltzaingoak astean zehar aurkeztutako informarean arabera hartu da. Eta urrengo hilabetean martxan jartzea espero da.

### Euskararen eguna

Pasa den aste honetan eta Beinkek antolatuta euskararen aldeko kanpaina antolatu du, *¿El euskara tu frontera?* izenekoa. Asteari amaiera emateko larunbatean ospakizun batzuk izango dira. Arratsaldeko 4etan Ortzadarrek antolatuta umeen jolasak eta jarraian astean zehar izan den petsonaia izkutua-ren jolasaren azken sariak banatuko dira. Aipatutako ekintza guzti hauek Herriko Plazan izango dira eta tartean kuadrilen arteko jolasak izango dira Arlutz tabernaren aurrean. Eta gauean herri afaria izango da dantzariak alaituta.

## Bergara

### • Sexologia zerbitzua

Udal Zerbitzuen artean sexologia zerbitzua hilabete batzuk direla jarri zen martxan. Astelehenean 4etatik 7ak arte zabaltzen dute bere zerbitzuak eta nahiz eta maiatzean iztea espero, ekaina, iraila, urria eta abenduan ere jarraitzea espero da. Bertan parte hartzeko asmoa dutenak ekainaren 19a baino lehen eman beharko dute izena Udaletxean.

### • Mendia Bizirik-en salaketa

Mendia Bizirik taldeak, autobus geltoki zaharreko hainbat zuhaitzen mozketak salatu du. Zirkoari eta jaietan izan diren barrakaei tokia egiteko kendu direla azpimarratuz eta oraingoan ere natura deseuztatzea erabaki dutela, beste batzuk gertatu den bezala. Baina honetaz gain, beste erreka inguruetan gauza bera egin dela baieztatzen dute: Abrain, San Juan, Arane, Idurixo eta beste batzutan. Guzti honengatik salaketa hau jarri dute.



## JOSU TXOKOLATEGIA KAFETEGIA

Elkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
ARRASATE TFNOA: 79 48 77



## ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
Arrasate



# Txandaka

ESTOKOLMO 1972 / RIO DE JANEIRO 1992

**E**gun hauetan Rio de Janeiron egiten ari den **Lurraren Gailurra**, 1972an Estokolmon egindako Konferentziaren jarraipena dela esan dezakegu. Planetaren etorkizuna ziurtatzeko beharrea eta itxaropenaren artean mugituz, hogeitaz hamar urte pasatu dira, eta gaur egun orduan esaten ziren gauza berberak esaten direla kontura gaitzake, baina berezitasun batekin: egungo ingurunearen narriadura ordukoa baino askoz larriagoa da.

Egiten den interpretazioaren arabera, garapen sostengatuaren ardatzean oinarritzen den hazkunderaren estrategiak, gutxienez, bi bide har ditzake.

Batzuen ustez, garapen mota honek nazio guztiei muga berdinarik jartzea eskatzen du, zein den beraien egoera sozio-ekonomikoa kontutan hartu gabe. Era honetan, garapen motak, herri aberatsetan bizi garenontzat oso erosoak den arren, Ipar eta Hegoaldeko nazioen artean dagoen aldea handitu egingo luke, pobrezia, gosea eta miseria legitimatuko lituzkeelarik herri horietan. Aldi berean, nazio batzuren garapena mantendu egingo litzateke baina ez Planetaren biztanle guztien giza garapen erreala.

Beste batzuentzat, gero eta gehiagorentzat, garapen sostengatua lortzeko gauzatu behar den hazkunde estrategiak, aldi berean, honako puntu hauek izan beharko lituzke kontutan:

- baliabideen gehiegizko hustiakuntza alboratu,
- ingurunea errespetatzea, eta beronen babesaren beharra planteatzen du, eta
- Hirugarren Munduko nazioen garapen diferentziatua proposatzen du.

Ikuspuntu honetatik abiatuz gero, asko dira aztertu behar diren gaiak: produkzio sistemak, demografia, teknologiaren transferentzia, baliabideen erabilpena eta/edo berriztapena, ingurugiroan ematen diren eragi-



nak, Iparra eta Hegoaren arteko erlazioak,... eta, noski, guzti honi aurre egiteko behar diren diru iturriak.

Marko edo esparru honetan, eta Brasilgo Bilera Orokorra gertatzeko beste bilera ematen zaio Rio de Janeiron Lurraren Gailurrari, bi eskenatoki ezberdinetan.

Alde batetik, Konferentzi Nagusia edo Ofiziala; bertan 150 Estatu baino gehiagoko buru, ministrari eta ordezkari, Ingurugiroa babesteko eta Hegoaldeko nazioak pobreziatik eta azpigarapenetik atera ahal izateko hartu behar diren neurriak zehazten eta adostasun batera iristen saiatuko dira. Beste alde batetik, '92 Global Forum-en, 10.000 pertsonatik gora (Erakunde Ez Gubernamentalak, talde indigenak, elkarte ezberdinak eta pertsona independenteak) bilduko dira esperientziak trukatzeko, eztabaidatzeko, biztanleria kontzientziazteko, eta agintari ofizialen aurrean, ahal den neurrian, presioa egiteko, Rioko Gailurra intentzio onen azalpen hutsean gera ez dadin.

Aztertuko diren gaiak, bi dokumentutan biltzen dira: **Lurraren Gutuna** eta **Agenda XXI**. Lehenengoak, badu posibilitatea onartua izateko, nahiz eta nazio guztien oneritzia ez izan. Eduki aldetik, mundu mailako deklarazio bat da (batzuek Giza Eskubideen Deklarazio-

arekin parekatzen dute), nahiko orokorra. Bigarrena, Agenda XXI, zehatzagoa da. Bertan, Ingurugiroko premiako gaien zerrenda eta programa operatiboak (egutegiak, gastuak, nazio inplikatuak, arduradunak,...) agertzen dira. Pentsatzekoa zenez, zehaztasun honek eta batez ere, diru arazoak (kostua eta finantziarioa) dira Agendaren hainbat atalen onarpena zailtzen dutenak.

Bi dokumentu horietatik aparte, eta nahiz eta Agenda XXIean ere aztertuak izan, beste bi gai monografikoki landuko dira: **Aldaketa Klimatikoa** eta **Biodibertsitatea**.

Horrela bada, Gailurra bukatu eta bertan sinatu diren dokumentuak eta hartu diren konpromezuak zeintzu diren zehazki jakin arte, orokorki, ondorio hauek atera ditzakegu:

- Ingurugiro arazoak, Ipar eta Hegoaldearen artean dagoen garapen diferentziari-kualitatiboa eta kuantitatiboa- estuki lotuta dauden arazoak dira,

- Arazo horien irtenbideen bilatze prozesuak, azpigarapenaren arazoa aztertuzetik pasatu behar du,

- Egin behar diren lanen finantziarioa (lan horiek aurrera bota ahal izateko, 125.000 milioi dolar behar direla aipatzen da), gehien kontsumitzen dutenen poltsikoetatik, herri aberatsetatik atera behar dira.

Bukatzeke, bi puntu izango lirateke azpimarratzekoak. Alde batetik, hain panorama iluna duen Konferentzia honek sortu duen interesa, publikitatea eta kezka (moda edo beharra, zeren aurrean ote gara?). Beste alde batetik, gure eguneroko bizitzarako izan beharko lukeen eragina zer gutxi aipatzen den, arazoa beste batzurenaz izango balitz moduan.

EUGENIO ASTIGARRAGA  
IRAKASLEA

**HUETO Doktorea**

**Eztarria, sudurra,  
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11  
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



**J. Ramón Otamendi**

**HARATEGIA**

Ferrerrias, 20 • Tel. 79 62 28

**ARRASATE**





Denbora luzez geldirik egon eta gero, Irgala enpresakoak berriz lanean Uharkapeko etxeetan.

## Uharkapekoak Azatzakoen zain

### Berriro obrak hasi epaileak baimena eman eta gero

Uharkapeko etxebizitzaren erosleek asteazkenean eskaintako prentsaurrekoan adierazi zutenenez, Azatzakoen erantzunaren zain omen daude behin betirako arazoarekin bukatzeko. Prentsaurrekoan adierazitakoaren arabera, Udala, Irgala enpresa eta Uharkapekoak prest daude erdibideko komenio bat sinatzeko eta Azatzako auzokideen erantzunaren zain daude. Dirudienez, komenio horretan Azatzakoei abal baten bidez, 40 milioiko ordainketa bat bermatzen zaie eta gainetik, gastuen ordainketarako, 20 milioi eskaini zaizkie, eta era berean kalteen erreklamazioerik ez egiteko eskatzen. Badirudi, ordea, Azatzakoei 100 milioi eskatzen dituztela.

Erdibideko komenio horretaz gain, gaur eguneko egoeraz eta obra luze honen historiaz ere hitz egin zen prentsaurrekoan. Han esandakoaren arabera, obra bi urtez atzeratzeak 1.000

milioi inguruko galerak ekarri ditu eta etxeak bukatzeko zain daudenen egoera larritu egin du. *"Guztien artean -zioen Juan Bautista Agirre, Uharkapekoen bozeramaleak- 600 milioi inguru jarrita dauzkagu etxe horietan, eta egoera txarrragoa da esaten bada hor sartzeko zain gaudenon 110 pertsonen %30ak dagoeneko etxea salduta duela eta etxeak egin arte beste zerbait aurkitu beharko duela, beste %30ak atzerapenaren ondorioz, etxea ondo saltzeko aukerak galdu ditu"*.

Obrei berriro hasiera eman bazaie ere, gogoratu behar da denbora luzez geldirik izan direla lurraren mugimenduak eragindako brintzak zirela eta, zirela, eta lurra eutsi behar duen horma egitearen aurka epaitegietan jarri diren interdiktoen ondorioz. Orain, bigarren interdiktoaren sententziak, aipatutako horma ondo egiten ari dela dio eta obrak egin daitezkeela.

## Usteak uste

**H**il honen hasieran bete dira bi urte Azatzako etxebizitzetako hormetan lehen brintzak agertu zirela eta beste urteurren pila bat ere beteak izango dira kaminoa noiz itxi zen, eskailerak noiz egin ziren, epailetara noiz jo zen, Udalak eusteko murrua egiteko agindua noiz eman zen... eta beste data asko begiratzen baditugu. Total, urte bi Uherkapeko kulebroia hasi zenetik.

Bien bitartean, arrazoia batakoz zein besteak izan, edo arrazoien zatirik handiena nork duen begiratu barik, kontua da Altamiran bizi den jendea eskaileretan gora eta behera edo autoz buelta izugarria eginaz ibili dela eta Otalora kaletik pasatzean ohitu egin garela mendi hegala horrela ikustera. Hala ere, badirudi azken egunotan zerbait mugitzen hasi dela (oraingoan ez gara paretetaz ari), eta geratuta eta kolore txarreko zeuden negoziazio edo irtenbide posibleak martxan jartzeko bidetan direla. Baina ikusteko dago.

Bien bitartean, denok dakigu gauzak pil-pilean daudela, baina gauza garbirik egon ez arren, iskanbilarik handienak oraindik etortzeko daudela ere entzuten da.

Eta, bien bitartean, non daude behean etxea erosteko ehun lagun horiek jarritako 600 milioiak? Norbaiti umeak egingo zizkion poltsikoan.

ARANTZAZU LOIDI

**URONDO**  
elektrizitatea



Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,  
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak



**SAMEGO**  
GARBIKETAK

Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39



**Udal Plenua**

Gaur arratsaldeko 7etatik aurrera, Udal Plenua burutuko da. Amaia antzokiko berogailua, lur publikoaren erabilerari buruzko araudia, herriko lorategien mantenuimendu lanen adjudikazioa, Uribarriko Jubilatuen Egoitzako tabernaren explotazioaren adjudikazioa eta Euskaldunon Egunkariak publizitateari buruz eta bailadako Ikastolek Buesaren aurka aurkeztutako mozioak osatzen dute gai-zerrenda.

**Erraldoi eta kilikiak Catalunya**

Kiliki eta Erraldoien konpartsak Catalunya Matadepera herrian burutuko den *Erraldoien Nazioarteko II. Topaketetan* parte hartuko du. Hori dela eta, bidaia egin dezan, Udalak 250.000 PTAko dirulaguntza eman dio.

**Gazte Zerbitzuaren erabilera**

Gazte Zerbitzuak adierazitakoaren arabera, urteko lehen lau hilebeteetan bertara joan diren 1045 pertsonen %60a emakumezkoak ziren, batez ere ikasketa eta lan munduko gaiei buruz galdetzeko. Ikasketei dagokienez, jendearen kezka handiena beka eta ikastaroen sortzen ei dute; eta lan munduan, atzerrian lana lortzeko aukera eta hizkuntzak ikastekoa aupair sistemaren bidez.

Horretaz gain, denbora librea eta astialdiari buruzko kontsultak ugari izan dira. Kontzientzia eragozpena eta intsumisioaz gazteek erakutsi duten interesa ere, aipagarria da.



Umeentzat egun berezia 25a izango da:

## Bueltatu dira barrakak

**Udalak 1.785.000 PTA jasoko ditu barrakeroengandik**

Aurtengo Sanjuanetan helduentzat hiru barraka (olatua, noria eta matxin-saltoa), txurreria, bi tiro pitxoi, diruaren truke eta pintzaz baliatuz opariak hartzen dituen makina, umeentzako bi barraka (karroussel-a eta scalextri-a) eta ohe elastikoak jarri dituzte. Aurreko urteetan barraken tokien adjudikazioa Udalak egin du, baina aurtan hortaz Euskadiko Ferianteen Elkarte arduratu da, eta barrakak jartzen uzteagatik 1.785.000 PTA ordainduko dizkio Udalari.

Barrakan egiten duten buelta bakoitzeko 125 PTA ordaindu beharko dituzte nagusiek eta umeek, berriz, 50. Hala ere, bi egun berezi daude: 19a helduen barraka guztiek 50 PTA balioko dute eta 25a, goizez umeek barraka guztietan dohainik ibiltzeko aukera izango dute eta.

Azken urteotako politika berari jarraituz eta inguruko herrietan gertatzen den bezala, etortzen diren barrakeroek, musika eta rotulazioan jartzen dutena gutxienez %50a euskaraz izan behar da.



Araba Etor., 4  
**ARRASATE**  
Tfnoa: 79 01 32

Koop. E.

Olakua, 14  
**OÑATI**  
Tfnoa: 71 60 00


### 92-93 IKASTURTEA

**ALEMANA FRANTSESA INGELESA**

**Matrikula irekita  
Hurbil zaitez gure bulegoetara.**

**Arrasaten 9etatik 1etara  
4 etatik 8etara**

**Oñatin 4etatik 8etara**



**IBERDROLA**  
**Bezeroaren onerako  
egina**

Tfnoak: Bezeroak: .... 12 01 54  
Larrialdiak: . 12 01 62  
Faxa: ..... 12 15 25

Bulegoa: Urkizu Pasealekua, 7  
**EIBAR**





Aurtengo begiraleak eta koordinatzaileak

## AED Udalekuetarako prest

*600 umek eta 60 begiralek hartuko dute parte*

AEDk antolatzen dituen Udalekue-tako taldeak osatuta daude jadanik. Uztailaren 6tik 17ra izango da lehen txanda eta 20tik 29ra bigarrena. Lehe-nean 451 haur izango dira, 38 talde guztira eta 6 koordinatzaile. Eta bigarrenean 159 haur, 13 talde eta 2 koor-dinatzaile. Arrasateko eskola guztietako haurrak hartzen dute parte eta hauetaz gain, Almen, Donostia, Zumarraga eta Irungo batzuk ere izaten dira. Ekintza guztiak Arrasateko hainbat ikastetxe-tan izaten dira. Jokuak adin bakoitzari egokitzen zaizkio, hau da, erakargarriak

izan daitezkeenak aukeratzen dira.

Begiraleak 17 urtetik 26ra bitarte-koak izaten dira eta horietatik asko es-perientziadunak, ikastaro batzuk egin-dakoak, lehen laguntzetan adituak eta gaubela eta jolasak prestatzen bada-ki-tenak. Hauen artean, begiraleen artean aipatu beharra dago aurten mutil gutxi izango direla.

Euskara maila aldetik ere, B eta D eredukoek lagun arteko giroan pasatzen dituzte egunak eta euren arteko harre-manak euskaraz hasi eta euskaraz iza-ten dira.

### ❑ Jatetxe txinoa Arrasaten?

Baliteke hemendik denbora gutxira Arrasaten jatetxe txinora joateko aukera izatea. Izan ere, Jianguo Yuan txinoak Udalari aukera hori aztertzeko eskaria egin zion eta Udalak aldeko txostena kaleratu du. Jatetxea Zarugalde kaleko hamazazpigarren zenbakian irekiko litzateke.


### ❑ HBren batzarra

“Urrats berri” prozesuari bukaera apirilean eman bazitzaion ere, oraindik Herri Komitea berritzeko dago. Hori dela eta, gaur ostirala arratsaldeko 7etan eta Arrano Elkartearen bilera burutuko da, egungo egoera politikoa aztertu eta Herri Komitea berria hautatzeko. HBko kide eta sinpatizatzaile guztiei agertze-ko gonbidapena luzatu nahi zaie.

### ❑ HIESaren aurkako zozketa

Joan den larunbatea, HIESaren aurkako astearen barruan, Monterronen burututako jaialdiaren atsedendian, hainbat sariren zozketa egin zen. Orduan ateratako zenbakiak honako hauek dira: Bi argazki makina, 5.512 zenbakia; pa-pergintzako produktuak, 9.762 zenba-kia; puzzle erraldoia, 0997 zenbakia; organo elektrikoa, 3.520 zenbakia; alkondara bat, 7.805 zenbakia; beste alkondara bat, 5.408 zenbakia; daratu-lua, 8.311 zenbakia; mendiko botak, 5.739 zenbakia; txamarra bakero, 8.608 zenbakia; eta udarako hiru kamiseta, 1.357 zenbakia.

## SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
Legutianoko aldea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

## ARRASATE PRESS



**77 05 65**

## NAROKI

Urrezko bitxiak

## NAROKI

Opariak, Jostailuak, Liburuak, Paperdegia

Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47





Argakian ikusten duzuen **"Oskars Cube"** izeneko jokua, M. Oskar Van Devender holandarrak asmatu du. Baina egiten hasi baino lehenagoko oinarriko ideia beste hainbatek eman dio, 16k guztira. Eta hauen artean Arrasatear bat dugu: **Antton del Campo**, Estatuan ere bakarra izan dena.



Pasa den igandean **Arrasateko**

**Atzeratuen Eguna** ospatu zen. Goizez denak bildu ondoren, hainbat ekintza burutu zituzten. Eguerdia aldera herri bazkaria izan zuten eta ondoren, dantza egiteko aukera ere ez zuten galdu. Arratsaldean alkatearen eskutik opari batzuk jaso zituzten. Benetan, denak ondo pasatu izanaren aurpegia izan zuten.

**Alfredo Irusta** eta **Maite Zubillaga**

maiatzaren 9an ezkondu ziren. Ezkon bidaian Mexiko, Cancun eta inguruko herrialdeetan izan ziren.

Modako lekuak dira! ▶



Epelde



**IRAKASLE ESKOLA**  
**Eskoriatza**  
**Gipuzkoa**

**Magisterio eskola honek zera jakin arazten du:**  
**1992-93 ikasturterako matrikulazio-epaia**  
**zabalik dagoela.**

**ESPEZIALITATEAK:**

- Haur-eskola
- Euskal filologia
- Ingeles filologia

**BIGARREN DIPLOMATURAK:**

- Haur-eskola
- Ingeles filologia

**Informazioa: IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 79 04 40**  
**Ordutegia: 9-13**



**Alkoholarekin**  
**arazoak dauzkazu?**

**Agian,**  
**"Alkoholiko**  
**Anonimoek" lagundu**  
**ahal dizute!!**

**Alkoholiko Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38





**Izen**  
**PROPIOAK**

● **Esther Merino**, 29 urte, San Viatorreko zuzendari orokor berria da. Esther, orain arte, San Viatorreko OHOKo zuzendari akademikoa izan da, magisteritza ikasi zuen Eskoria-tzako Irakasle Eskolan Natur Zientzia adarretik. Ikasketak bukatu zituenetik, orain 9 urte, San Viatorren ari da lanean.

● **Alejandro Orbe**, 41 urte, Deba Garaiko anbulategietako zuzendari berria da. Ikasketak Salamancan egin zituen eta azken urteetan Bergara eta Antzuolan lan egin du.

● **Donostian bizi diren 80 arrasatear** inguruk bazkaria izango dute asteburu honetan. Bazkaria larunbatean izango da, 2.30ak aldera, baina aurrez, 12etan meza izango dute Aieten eta bertan Arrasateko Parrokiako Abesbatza izango da.

▲ **Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruko 36 emakume Suizan** izan dira, Lausanne, Berna, Interlaken, Lucerna eta beste hainbat herri txikitan. 5 egun herri hauetan igaro ondoren, pena handiz bueltatu dira Arrasatera eta datorren urtean nora joan ere pentsatzen hasiko ziren honezkero.



◀ Joan zen larunbatean eta **HIESaren kontrako asteen** izan diren ekintzen barruan, kontzertu bat izan zen Monterronen. Parte hartu zuten taldeak honako hauek izan ziren: *AM 53*, *Zakarrak* eta *EH Sukarra* (argazkian).. Giro ezin hobea eta jende pila.

**AZAFATA, HARREMAN PUBLIKO eta TURISMO-GIA ESKOLA**

centers

Pasajes de San Pedro, 1

GASTEIZ

Tfnoa: 945 - **28 35 34**



OIHALAK

Errekabarren, 20

ARETXABALETA Tfnoa: 79 80 90



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)

Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak  
Otzaratzarrak  
Giltzak gordetzeko armairuak  
Erremintak eramateko gurdiak  
Erremintak gordetzeko armairuak  
Lan egiteko aulkiak

**Plus Ultra**  
**taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE Tfnoa: 79 20 57





Urtero bezala **txakurren bakunazioa** egiten ari dira Arrasateko auzo desberdinetan. Bakoitzaren fitxa eta datu zehatzak gordetzeko, txakurraren jabeak izan behar duen liburuxkan gordetzen dira urteroko azterketak eta izandako gaixotasunak



Pasa den aste honetan **hainbat ekintza izan ditugu jubilatuei zuzenduak**. Hasteko, larunbatean SUDC antolatuta bazkari eta omenaldia ere izan zen. Horretaz gain, Iturbide egoitzan, egunero zerbeit. Argazkian ikusten duzuen moduan, **Zabale anaien erromeria** alaia ere bai.

Pasa den astean antolatuta **Inguru giroaren astea** ospatu zen Maxi Eroskin. Larunbatean ekintzei amaiera emateko, OHOk ikasleentzat marrazki lehiaketa antolatu zen. 100 ume inguruk hartu zuten parte eta amaieran denek jaso zuten sariren bat: argazki kamarak eta antzeokoak. Parتهartzailen artean bizikleta bat zozketatuko da ostiralean eta saria emateko kirolari famaturen bat ekartzea espero da.


## EDER apaindegia

honako zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

- Solarium-a
- Ileenketa
- Masaia
- Manikura
- Larmintz garbiketa
- Makilaia
- Pedikura

Maalako errabala, 6 1. ezker  
ARRASATE Tfnoa: 79 71 23

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



## ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5  
Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

ENARA  
OSAGARRIAK

Maalako Errabala, 21  
Tfnoa: 79 62 32  
20500 Arrasate



ARRASATE  
PRESS



77 05 65



**J**ose Antonio Pagola  
Elizbarrutiko  
Bikario Nagusia da.  
Joan den astean

Arrasaten eman zuen  
hitzaldian esandako hitz  
batzuk ekarri ditugu orrialde  
honetara.

— Arrasateko hitzaldian  
aipatzen zenuenez, bost pre-  
supostu dira ezinbestekoak  
Euskadin bakea lortuko bada.

— Bai, lehena, giza es-  
kubide oinarrizkoen aurka  
doan edozein gauza zalan-  
tzarik gabe kondenatzea. Bi-  
garrenik, politikan postura  
dogmatikoak gainditzearen  
beharra. Hirugarren puntu  
bezala, herri baten benetako  
borondatea errespetatzea, eta  
hor kontutan izan behar da  
borondatea ez dela unanimea.  
Laugarrenik, egia gailentzea  
eta ezartzea, bai komunika-  
bideetan eta baita politikoen  
artean ere. Eta bukatzeko,  
bosgarrenik, Bakerako bidea  
egin, irtenbide politikoa bi-  
latuz, kontutan izanda neurri  
polizialek ez dutela arazoa  
konponduko.

— Bide hori lantzeko, jarrera  
batzuk ere aipatu izan dituzu.

— Bakea ez da berez in-  
darkeriatik sortuko. Ez da  
ETAren nekea dela eta  
bakarrrik helduko eta gutxia-  
go bere indarkeria odoltsue-  
tatik. Bakeak, guztiok sortu  
behar dugun gizarte giro  
egokia behar du eta nik ai-  
patzen ditudanak bakerako  
jarrera batzuk dira, erreflexio  
edo gogoetarako pista ba-  
tzuk:


1.- Kontzientzia etikoa  
iratzarrazi geure baitan, gero  
kontzientzia horri entzuten  
jakin eta bizia defendatu.

2.- Herriak benetan in-  
darkeriaren ala bakearen bi-  
dea nahi duen ikusi.

3.- Irtenbidea politikoen  
eskuetan bakarrik ezin dela

Jose Antonio Pagola

## Bakerako jarreraren mezularia



utzi jabetzea. Politikoak be-  
hartuta daude astia, irudime-  
na eta ahaleginak jartzera,  
baina euren ekintzen akulu  
izan behar du gizarte giroak.

4.- Herri honen onerako  
bakea bilatzea da une hone-  
tan lehen helburua eta bakea  
alderdi bakoitzaren interesak  
baino garrantzitsuagoa da.

5.- Gure arazoak gizakia-  
ren duhintasunari dagozkion  
bideetatik konpontzen ikasi.  
Beste edozer baino lehen,  
gizakiak gara eta guztionzat  
onena bilatuz, elkar ulertze-

ra deituak gara.

6.- Eritziak eta jarrera  
hurbiltzera eta elkar ulertze-  
ra eramango gaituen guztia-  
ren alde egon eta bultzatu.  
Etorkizuna eraikitzeko guz-  
tiok gara beharrezko.

7.- Politikako grina hezi-  
tzeko beharraz jabetu.

8.- Slogan, kanpaina edo  
antzekoek eragiten utzi barik  
argi ibili, eta bakea bakez  
eskatu.

9.- Egia bilatu eta ez de-  
formatu edo itxuraldatu edo  
estrategia baten menpe jarri.

Gezurak ez dakar elkar  
ulertzetik eta itsutasunak in-  
darkeria sortzen du.

10.- Elkarrizketa soziale-  
rako giroa bultzatu eta bes-  
tearen egiari arreta jarri. Inor  
ez da egia osoaren jabe eta  
alderdiak ere horixe dira,  
“aldeak”.

11.- Barkamen egiazko  
eta zintzorako prestatu eta  
mendekuari lekurik ez utzi.

12.- Azkenik, bakearen  
gatik otoitz egiten jakin,  
bakea gure barnean egin da-  
din, izan ere, barruan bakerik  
ez duenak nekez baketuko  
bait du ezer.

— Konfliktibitateaz hitze-  
giten duzu askotan. Eliza ho-  
rretan sartzen da?

— Jakina. Eliza gizakiok  
osatzen dugu eta pentsakera  
eta ideia ezberdinetako per-  
tsonak gauden neurrian, gi-  
zartean bizi dena isladatu  
egiten da Elizan ere. Beste  
gauza batzuren artean, hiz-  
kuntzen arteko gatazka, kon-  
fliktoa ere aspalditik bizi da  
Elizan.

— Komunikabideak, erre-  
ta ere egongo zara, bada.

— Beno, gertatu diren  
guztiekin ez dut nik bakerik  
galdu, kanpotik besterik ba-  
zirudien ere. Gero, komu-  
nikabide batek bere ideologia  
izan dezake eta beraz interes-  
satzen zaiona atera, eta hori  
normala da ni ados egon ez  
arren. Baina badira ABC  
bezalako egunkariak, ira-  
kurleak erabat desinforma-  
tuta eduki dituztenak, he-  
mengo Gotzaien lana isildu  
egin dute eta horretarako ez  
dago eskubiderik.

Gero komunikabideekin  
beste gauza bat gertatzen da.  
Arlo guztietarako kazetari  
espezialduak daude eta ho-  
nelako gaiak kubritzera edo-  
zein bidaltzen dute. Ez dago  
prestakuntza berezirik duen  
inor eta hori igarri egiten da  
gero.

“  
Politikan beharrezkoa da  
postura dogmatikoak gainditzea”



# Hormak: mezu desberdinen islada

**Gizakiak, zerbaitengatik badira, komunikatzeko duten gaitasunagatik dira gizaki. Hizkuntzaren erabilera, ahozkoa zein idatzizkoa, gizakiaren garapenaren lekuko dira. Erabilera arruntaren lekuko dira egunero ikus daitezkeen egunkari edo liburuak; bereziana, berriz, tabernetako komunetako horma edo ateetan aurkitzen diren esaldiena.**

## Nolako jendea, halako...

**T**abernetako komunak, pintadei dagokienez, zikinak daudenaren ustea oso zabala da. Eta egia esan, tabernaz taberna ibili denak uste bera zuen erreportaia egin aurretik, baina emaitzak ez dira suposa zitekeenak izan: bisitatutako hamar tabernetatik, sei garbi-garbi zeuden eta.

Hainbeste taberna dauden tokian hamar bakarrik bisitatuta, jendearen joera orokorrak zeintzuk diren jakitea ez da erraza. Hala eta guztiz ere, soma daitezkeen joera batzuk aipatuko ditugu. Horrela, badirudi erdigunean ibiltzen den jendeak, pintadak edo esaldiak egiteko orduan auzoetan ibiltzen denak baino gogo handiagoa duela, auzoetako tabernak orokorrean garbiago daude eta. Zentzu berean, emakumeak gizonak

baino garbiagoak direla esan daiteke, bisitatutako hamar tabernetan bakarrik baten zeuden idatziak emakumezkoen komunean eta. Tabernak alde batera, Seberoko komun publikoetan ere gau-


za bera gertatzen da: gizonezkoenak idatziz beteta eta emakumezkoenak garbi garbi.

Idatzeko teknikei dagokienez, hiru dira erabiltzen direnak: grabatua, batez ere

egurrezko ateetan; rotulazioa, gehienbat horma eta baldosetan; eta metxeroaz egindako markak, sabaian normalean. Idazki, marrazki eta markak egiteko tokirik aukeratuena ate ostea da, prakak jaitsi eta eserita egoten denaren aurrean ikusten den zatia, ez zutirik eta hormara begira egoten denaren atzean edo alboan aurki daitekeena. Beraz, pentsa daiteke komuneko marrazketa edo idazketa, larritasunaren ondoren etortzen den lasaitasunean egiten dela. Gainera, bada beste detailtxo bat, ateen behekaldea da gehien markatzen dena; hortaz, ez dago gehiegi pentsatu beharrik marrazketarako posiziorik egokiena, behintzat erabilien dirudiena, zein den imajinatzeko.

## Zertarako?

**T**aberna edo komun publikoetako idazle eta marrazkilarien joerak alde batera, edukiei ere begirada bat eman behar zaie, idazten duenak zerbait adierazi edo komunikatu nahi duela espero daiteke eta.



Komunen horma askotan aurki daitezke rotuladoren egindako marrazki eta idazkiak.



Idazleen inizialak, rock taldeen izenak, politikarekin eta borroka armatuarekin zer ikusia duten sloganak eta soldaduzka eta 92aren aurkako sloganak dira erabiliak. A gehienak buelta emanda edo zirkulu baten barruan ikustea, Q gehienak K bihurtzea eta esaldi gehienak erdaraz edo sasi erdaraz idatzita egotea ere gauza normala da.

Bestalde, aipa daiteke horma edo ateetako marrazki edo idazkiak, grabatuaren teknikaz eginda ez badaude behintzat, gehienbat urtebeteko iraupena izaten dutela, taberna gehienak urtero pintatzen dituztela jakineko gauza bait da. Azkenik, esan behar ez dirudiela originaltasun handirik dagoenik, hainbat eta hainbat esaldi, batez ere politikoak, errepikatu egiten dira eta Gehien errepikatzen diren eta originalenen zerrendatxoak ondoren: "Matxinada", "Viva el fascismo, ke pollas,



Kaleko hormetako pintanden aldeko eta aurkako jarrerak daude.

ja, ja, ja, que ciego estoy", "Gora ETA (m)", "Viva Franco y su bigote", "Ni bandera vasca ni española, todas matan", "SS-70 y tontos", "Mutil irraillak eta bere lagunak pikutara", "Etxeostea 8-3º B, Isabel Relax", "HB=IRA=KK", "Mungia gogor", "PNV=KK", "Policia = heroina", "Me cago en la puta

mili", "(Izen piloak) tios buenos, pruebalos", "Matar pijos es un deporte, contamos contigo", "Guti, paso de ti. Anonimo".

#### Kaleetan ere bai

**A**ipatutako modukoak ehundaka aurki daitezke, ez bakarrik taberne-

tako komunetan, Arrasateko kaleak pintadaz beteta daude eta, kaleko hormetan gehienbat egoera politiko konkretuak eta salaketak agertzen badira ere. Pintadez gain, kartelak ere nonahi ikusten dira, bata besteari erantsita, askotan aurrez zegoena errespetatu barik.

Egia esan, araudirik ez dagoenez, Arrasaten ez dago inolako arazorik pintadaren bat egin edo kartelen bat jartzeko. Dena dela, une honetan Udala gaia aztertzen ari da eta badirudi hemendik lasterrera hormen sailkapen bat egingo duela, hau da: pintada egin eta berehala garbitu beharreko horma eta egin duenari isuna jartzen, eta astero garbitu beharreko hormak. Horretaz gain, badi-rudi sei hilabetean behin garbiketa orokorra egiteko asmoa dagoela.

## Kartelen borroka

Kaleetako pintadak eta kartelak direla eta ez direla, bi jarrera garbi eta nabariak daude: alde eta aurka daudenak.

Komunikabideek zenbait egoeren aurrean gordetzen duten isiltasuna eta egoera horiek nolabait herritarren aurrean isladatu beharra aldarrikatzen dute kartelak eta pintadak inolako araudi mugatzailerik barik jartzearen alde daudenak. Aurkakoak, berriz, herriaren garbitasuna jartzen dute beren interesen alde.

Historia ez da horretan amaitzen, aldekoak aurkakoak helburua errealitatea izkutatzea dela diote eta hemen ezer gertatzen ez denaren itxura eman nahi izatea; besteak kaleak zikitzen direla eta kasu batzutan eraikuntza historikoei kalteak egiten zaizkiela diote. Amaiera zaileko borroka, beste baten isladapena seguruen.

**Basabe  
jatetxea**

### Menu eta afariak Boda eta banketeak

Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tfnoak: 79 91 84  
77 07 94

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M  
ARENAZA**

Bizkaia, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07




# Arrasate Saski-baloi taldearen ihardunaldiak

Arrasate Saskibaloi Taldeak antolatuta, ekainaren 29tik uztailearen 10era saski-baloi ihardunaldiak burutuko dira. Ihardunaldien ardura-duna Txus Brizuela izango da, 2. mailako taldearen entrenatzailea.

Ihardunaldietan 1975 eta 1982 urteen artean jaiotako emakume zein gizonezkoek parte hartu ahal izango dute. Saskibaloian jokatzeko ikasi nahi dutenek eta teknika hobetu nahi dutenentzat, beraz aukera ezin hobea. Ekintzak, lehen aipatutako egunetan, goizeko 10etatik eguerdiko letara eta arratsaldeko 4etatik 7etara burutuko dira.

Izena emateko epea ekainaren 21ean bukatzen da, eta inprimakiak kiroldegian edo eta ikastetxeetako idaz-



karitzetan lor daitezke. Ins-kripzioa 7.000 PTAKoa da ihardunaldietan bertan baz-

kalduko dutenentzat eta 2.000koa bere kasa bazkal-tzen dutenentzat.

## Ramon Luengok ondo merezitako omenaldia jaso zuen

Ramon Luengok hainbat urteetan Mondra eta Pedruskoren kamiseta defendatu duen ondo merezitako omenaldia jaso zuen pasa den asteburuan.

Omenaldirako, aurrez aurre Mondra eta Pedrusko. Lehen denborako zatirik handiena Luengok Mondrarekin jokatu zuen, baina gero Pedruskorekin. Partidua ikusgarria izan zen, eta 3ko berdinketarekin amaitu zen. Ramonek ez zuen partidua osorik jokatu, baina forma onean dagoela erakutsi zuen eta zaletuen txalok jaso zituen zelaia uzterakoan.



## Kanpoko pizinak astelehenean irekiko

Azkenaldeko eguraldiak horren itxurarik ematen ez badu ere, uda gainean dago. Hori dela eta, astelehenean Musakolako kiroldegiko kanpoko pizina erabiltzeko moduan izango da. Gauzak asko aldatu beharko dira jendeak aukera hori aprobetxatzea dezan.





# Kabia

## altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

AKADEMIA

## BASTIDA

NEBIRIK HONOLOGATUTAKO ZENTRUA

1992 UDAKO IKASTARO TRINKOAK

- GESTIO INFORMATIKA
- PROGRAMAZIO INFORMATIKA
- KONTABILITATEA ORDENAGAILUZ
- MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ
- TAKIGRAFIA
- KLASE BEREIZGARRIAK
- MERKATAL KORRESPONDENTZIA EUSKARAZ

Ferrerias, 44 etxeba  
20.500 Arrasate  
Tfnoak: 79 32 16  
79 77 13



# JUAN KARLOS

## TROJAOLA


### Hegoamerika bizikletaz

**J**uan Karlos Trojaolak Hegoamerikan zehar bederatziz hilabetetan 6.000 kilometroko bidaia egin du bizikletaz. "Ez da aparteko marka, baina kirola egitea baino hango lurra, jendea eta ohiturak ezagutzeko asmoa nuen. Dena dela, bidaia egin ahal izateko entrenamendu apur bat eginda nuen. Bidaia hau egin aurretik, Euskal Herrian eta Asturias inguruan ere ibili nintzen antzerako martxan. Gainera, betidanik gustatu izan zait kirola egitea, futbola, pilota, igeriketa, mendiko txangoak... hala ere zaintzen hasi beharra ikusten dut, adinak ez du barkatzen eta lehengo bide laurdena eginda gehiago nekatzen naiz".

Kubatik abiatu, Mexikora pasatu eta Nikaraguaraino jaitsi zen Juan Karlos, tartean Guatemala, El Salvador eta Honduras pasa zituelarik. Astebete besterik ez da pasatu abioia hartu eta hona iritsi zenetik, eta oraingik hemengo bizimodura ohitu ezinda dagoela aitortzen du. "Hango bizimodua guztiz diferentea da, pobrezia eta miseria dira nagusi eta. Hangoa ikusi ondoren, hemengo bizimodura ohitu ezinda nago... pentsa arazi egiten du, ondoegi bizi garela uste dut".

Hegoamerikako herrien egoera latza gertutik ezagutu du bidaian, baina

# PODIUMA



aurretik ere zerbait entzunda zuen. Horrela, hango egoera nolakoa izango zen pentsatuta, bidaia egin ahal izateko bizikleta konpontzeko tresnak hemendik eraman behar izan zituen. "Uste nuen han ez zela inolako errepuestorik izango eta hemendik eraman nituen giltzak, tornilloak, pneumatikoak, pintxazoak konpontzekoak... baina hara iritsi eta konturatu nintzen ia alperrik neuzkala, han ere bazeuden eta. Janaria? Aparteko gauzarik ez, lehenengo hamabost egunak, han erosten nuenaz aparte, etxetik eramandako jakiez pasatu nituen, baina gero tokian tokikoarekin eta ez dut problemarik izan".

Bederatziz hilabete pasatu arren, Juan Karlosi ez zaizkio oraingik horrelakoak egiteko gogorik joan. "Adinean aurrera nindoala eta bestela ez nuela aukerarik izango eta hanka egitea erabaki nuen aurrekoan, baina oraingik antzekoren bat egitea gustatuko litzaidake. Behar bada ez hain luzea".

### ◆ Kabero 3. Elgoibarren

Jubenil mailako lehen urteko txirrindulariek, joan den asteburuan Elgoibarren izan zuten zita. Irteeran 120 txirrindulari eta helmugan 70; beraz, 64 kilometroko ibilbidean 50 mutilek proba utzi zuten. Dorletako Ama taldeko txirrindulariek lasterketa ona egin zuten, baina ezin izan zuten garaipenik lortu. Ruben Kabero hirugarren izan zen eta Zigor Urain, berriz, seigarren. Felix Zugasti, Antonio Prol, Iker Zugasti, Aritz Altube, Josemi Elizburu eta Josu Gonzalez ere talde berdinean sartu ziren.

### ◆ Herrien arteko Pilota

#### Txapelketari buruzko zuzenketa

Herrien arteko Pilota Txapelketa dela eta, Orioren aurkako kanporaketari buruz emandako informazioa ez zen zuzena. Arrasate Press-en informazioaren arabera, Oriok Txapelketatik kanpo utzi zuen Arrasate, baina oriotarrek jokatu ezin zuten batek jokatu zenez, kanporaketa arrasatearrentzat izan zen. Gauzak horrela gertatu ziren, baina esan beharra dago kanporaketa hori bakarrik herremintan jokatu zela eta ez eskuz, eskuzkoan arrasatearrek 5 eta 1 irabazi zien ofatiarrei eta.

### ◆ Iban Abasolori omenaldia

Joan den asteburuan, Iban Abasoloren omenezko partidua jokatu zuten Iturripeko kiroldegian azken urte haue-tan Arrasate Eskubaloi taldeko jokalariz izan direnek. Partidua hasi aurretik Iban-en gurasoek eta andregaiak, eskubaloi taldeko arduradun eta jokalarie-gandik lore sortak eta beste operi batzuk jaso zituzten. Gogoratu Iban Abasolori, Arrasate Eskubaloi taldeko atezaina izan zen, lan- istripuan bizia galdu zuen arte.

# Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

## Gabriel Elorriaga Dka.

### Loditasuna • Zelulitia Zelulolipolisiaren tratamendua

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54



# Lanbide-orientazioa

**H**ezkuntz prozesuan zehar, gazteak zenbait erabaki hartu behar izaten du neurri handi batean bere etorkizuna baldintzatzen eta nekez kontraerabaki ditzakeenak.

Gazteek, gaur egun, ikasteko aukera gehiago dute, baina aldi berean duda eta zalantza gehiago ere bai bakoitzarentzat egokiena den aukerabidea hautatzeko. Gainera, langabeziaren gihitza eta lan-merkatuaren bilakaera bizkorra erronka pertsonal handiak dira gaztearentzat.

Honengatik, gero eta konplikatuago eta zailago da hezkuntz eta lanbide-arloan erabaki egokia hartzea.

Gaur egun, ikasteko aukera edo lanbide-irteerari buruz informazio handiagoa dagoen arren, gazte eta gurasoei oso zaila gertatzen zaie egungo aldaketa industrial eta teknologikoen eragina



interpretatzea ikasketa eta lanbide-heziketari dagokionez.


Gaztearen orientazio erabakiak hartzerakoan prozesu jarraitu eta iraunkorra da eskolan eman behar dena heziketaren beste alderdi bat

bezala. Gaztearen beraren partaidetza aktiboa behar da, bai bere ahalbideez jabetu dadin, eta baita gizarterrealitateak ezagutu ditzan ere.

Orientazioa eraginkorra izan dadin, eskolak zuzendu

behar du prozesu konplexu hau, nahiz eta eskola-sistemaz kanpoko beste erakunde batzuen laguntza ere behar den. Orientazioaren kalitatea hobetzeko zerbitzu jarraituago eta profesionalagoa behar da.

JULIAN SERRANO  
HEZIBIDE



## EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABAETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



**HAURTOKO**

Arrasate Pasealekua 4,  
ARRASATE Tfnoa: 79 14 90

**IBARRA Garajea S.A.**



**EBRO  
NISSAN**

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78



# UDAL EUSKALTEGIAK

## Udako ikastaro trinkoa aurkezten du


- Egunean 5 eskola
- 6.000 PTA matrikula
- Bekak
- Ekainaren 29an hasteko
- Matrikula epea ekainaren 16an bukatzen da

Informazio gehiago:

79 70 77 edo 79 77 88 telefonoetan.

Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)

ARRASATE

UDAL  EUSKALTEGIAK

**OPORRETAN  
EZ DUGU IXTEN**



# Julio Kageta, Danba eta Su ta Gar Kiroldegian

**D**atorren ekainaren 19an, ostirala, San Juan jaien atarian, sekulako rock kontzertua burutuko da Musakolako kiroldegian: *Danba*, *Julio Kageta* eta *Su ta Gar* taldeak bertan. Kontzertuari gaueko 10etan emango zaio hasiera eta sarrera 500 PTA izango da. Biona, Hire edo Hostal-ean salgai.


*Danba* taldeari buruz, esan behar da Laudioko talde honek inoiz ez duela Arrasaten kontzerturik eskaini, baina azken urtebetean Bergaran bi aldiz jo duela eta gainera arrakasta lortu. Josu Garaita, Danbako partaideak, Arrasate Press-eko kontzertuan hartu zuen parte, eta jendea gehien berotu zuena izan zen. *Julio Kageta*, berriz, oso talde ezaguna da eta bere diskoa aurten Arrasaten gehien saldutakoen artean dago. Orain denbora gutxi



Su ta Gar

gaztetxean jo zuten eta iaz Euskal Herrian kontzertu gehien eskaini zuen taldea izan zen. Azkenik *Su ta Gar* eibartarrak, arrakastaren bidetik eta Musakolan "Hortzak estuturik" diskoaren aurkezpena egiteko prest dagoen taldea, nobedadea beraz.

Argi dagoenez, indar handiko kontzertua eta ez bakarrik taldeengatik, soinu nuko 16.000 batioak eta argietako 60.000ak ere zer ikusirik izango dute eta.



Danba

**5 sarreren  
zozketa  
Arrasate  
Pressen**

Moztu eta ekarri beheko txartela datorren asteeko asteazkena 17a baino lehen Arrasate Pressera eta bost sarreren zozketan hartuko duzu parte.



Izena: .....

.....

.....

.....

Telefonia: .....

.....

**E · S · T · U · D · I · O**

I N T E R I O R I S M O A

- Dekorazio proiektuak
- Lokal komertzialen eta etxebizitzaren eraberrikuntza
- Gremioetako ekipo osoa
- Diseinu orokorra

Garibai, 3 bis  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 01 44

**ARRASATE  
HOTELA**

**Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16**

**SLIMNING EMAKUMEEN GIMNASIOA**

ESKAINITZA:

Gimnasia aktiboa/ Ikastaroak: aerobic-a, jazz-eko lehen urratsak, dantzako lehen urratsak, diskoa, erritmoa, gimnasia pasiboa eta masaia.

**Irakaskuntzako kalitatea eta kalitate profesionala**

**Arreta pertsonalizatua.**

Deitu arratsaldez 77 01 87 tfnora. ERGUIN 3 etxabea. ARRASATE



# Antton Garate

## Gesalibarko koruko zuzendaria

### ◆ Izenematea

#### Arrasate Musikal-en

1992/93 ikasturtean Arrasate Musikal-en matrikulatuta egon nahi duenak, izena emateko aukera izango du ekainaren 17a arte egunero arratsaldeko 6tatik 9etara eskolan bertan. Izenematea egin ahal izateko bi baldintza bete behar dira bakarrik, gutxienez 8 urte izatea eta Arrasaten bizi izatea.

Arrasate Musikal-en dagoen eskaintza honako hau da: kantua, flauta, oboea, klarineta, fagot-a, saxofoia, tronpeta, tronpa, tronboia, tuba, bonbardinoa, fliskornoa, biolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua, perkusioa, batera, txistua, pianoa, akordeoia eta kitarra.

### ◆ Kontzertua Gaztetxean

Bihar larunbata, gaueko 10.30etatik aurrera gaztetxean rock-kontzertua burutuko da, bertan *Red Alert* ingelesak eta *Zakarrak* arrasatearrak izango dira. Sarreara, 450 PTA.

### ◆ Tanborradarako deialdia

San Juan bezpera eguna gertu dugu eta orain arte egun horretako tanborradan parte hartzeko oso jende gutxi eman dutenez izena, SUDC elkarteak deia luzatzen die arrasatear guztiei tanborradan parte hartzeko eta batez ere emakumeei.

**Gesalibarko koruko zuzendaria dugu Antton Garate. Sortu zenetik gorabehera asko izan ditu eta guzti horren berri jakiteko berarekin egon gara.**

— Noiz eta zergatik sortu zen da korua Gesalibarren?

— Ni mutikoa nintzela herriko gazte denak joaten ginen kantatzera fraileen etxera. Batzuk asko eta beste batzuk gutxiago ikasi zuten. Organoa jotzen ere erakusten zenez, Dionisio Zabartek ikasi zuen eta horregatik abeslariak eta organista izanik gure korua sortu genuen. Guzti hau 1930-35. inguruan izan zen. Gaur egun Garagartzan ere eta bertako korua egon arren, denok batera abesten dugu askotan.

— Koruan organoak garrantzi asko du, ezta?

— Bai, organorik gabe ezin da erritmo bakarra markatu eta gainera ikasten dabilzanentzako ere beharrezkoa da doinua, soinua entzutea.

— Ahots ona jaio ala egin egiten da?

— Ikasteak asko laguntzen du bakoitzaren ahotsa modulatzeko, baina benetan ona izateko jaio egiten da. Ahots txarrarekin



jaio arren gusto ona izan dezake baina ahots on ona izaterik ez da lortuko.

— Zuen koruan zenbat ahots daude?

— Batzutan lau ahotsetara abestu dugu baina oraingo abesti gehienak bi ahotsetan abesteko izaten dira. Hala ere, zenbat eta ahots gehiagotan abestuz, askoz zailagoa izaten da.

— Koruan kantatzeko



**"Ahots onarekin jaio egin behar da, gero modulatu ahal izateko"**

musika jakin behar da?

— Ez derrigorrez. Gure koruan badaude ez dakitenak, baina hala ere nik musikazko ezagupen orokorrak ezagutzea gomendatzen dut, asko igartzen da musika nork dakien, asko laguntzen die eta.

— Eta ahotsa zaintzeko zer egin behar da?

— Ba, egia esan oso inportantea da ahotsa zaintzea eta horretarako ez erretzea da garrantzitsua.

— Adinarekin ahotsa ere aldatu egingo da, ezta?

— Bai umetan tripleak izaten dira eta denborarekin baritono, tenor, tenor bigarrena, baxua eta abar izaten dira, segun bakoitzaren ezaugarriak.

— Gesalibarko koruaren etorkizuna nola ikusten duzu?

— Oso zaila da jakitea baina momentuz igandero kantatzen dugu hemengo elizkizunetan eta kanpotik ere izaten ditugu eskakizun batzuk. Horretaz gain, etorkizunean organista bat izatea nahiko erraza ikusten da, baina abeslariak ez. Gure korua, parte hartu nahi duten guztientzat dago zabalik baina gazteen ahotsa da behar duguna jarraipen bat emateko.

**ITSASKI**

arrandegia

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa  
Arrasate 79 98 94

**ESTETIKA ZENTRUA**

lurrundegia, opariak, jostailuak

**Z a r r a o a**

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19



Aste gazte

"Gizona libre da. Baina ni emakumea nintzen eta nere gaztetasunak, gurasoek, diru ezak eta garaiak berak lotuta nindukaten"

Josefina R. Aldekoa  
("Historia de una maestra")

Gazte elkartrukea

- Arrasate-Almendralejo (Badajoz), 14-17 urte bitarteko arrasatearrei zuzendua. Uztailen: 1. hamabostaldia Almendralejon eta 2.a Arrasaten. Partehartze-kuota: 12.000 PTA. Plaza mugatuak.

"Panticosa Cultural"

- Panticosako Bainuexean, Abuztuan, aukera ederra duzu astebete lasai emateko eta antolatutako tailer edo ikastaroren batetan parte hartzeko. Adibidez: rock-tailerra, bideoa, saloiantzak, ... Ikastaroa eta pentzio osoa: 12.000 PTA.



Auzolandegiak atzerrian

- Uda gainean badugu ere, oraindik garaiz zaude auzolandegiren batetan zure plaza erreserbatzeko. Aukera ezberdinak: Marruecos, Italia, Turkia, ... Animatuz gero, mugitu zaitez.

Bekak

- Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira-Museoan aritzeko 5 beka: 3 sailkaketa eta dokumentaziorako, bibliotekarako bat eta material berriztapenerako beste bat. Baldintzak: Historian edo Arte Ederretan lizentziatua. Iraupena: 6 hilabete. Dirulaguntza: 675.000 PTA. Epea: ekainak 16.

- Britainia Handian, Frantzia edo Estatu Batuetan ikasketak sakontzeko beka. Eskatzaileak: edozein

arlotako lizentziatuak. Iraupena: 10 hilabete. Dirulaguntza: bidaia, matrikula eta hileko diru-kopuru bat. Epea: ekainak 30.

Auto-stop antolatua

- Donostiako Tandem Kultur Elkarteak zerbitzu interesgarri hau eskaintzen dizu: nora zoazen pentsatuta duzunean, dei egin bertara (291258), baten bat leku berbera joanez gero, elkarrekin joateko.

Hizkuntz ikastaroak atzerrian

- TIVEk aurtengo udako ikastaro programak argitaratu ditu: frantsesa, ingelesa eta alemanera, 16-30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Interesatuak datak, lekuak eta prezioak kontsulta ditzakete.

Lehiaketak

- Kondaira beltzak V. Lehiaketa. Lanek, gehienez, 6 orrialdekoak izan behar dute. Gazteleraz. Sariak: 100.000 PTAko sari bat eta 10.000ko 3 akzesit. Epea: ekainak 19.

- Udaberria Poesia-Lehiaketa. Gai libre. Sari bakarra: 50.000 PTA. Epea: ekainak 20.

- "El Llano" VII. Ipuin-Lehiaketa. Gai eta luzera libreak. Epea: ekainak 30.

- "Palencia de Teatro" XVI. Saria. Lanen gaia: libre. Eraupena: antzerki-ikuskizunetan ohizkoa. Gazteleraz. Sari bakarra: 500.000 PTA. Epea: ekainak 30.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65



Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN  
SORKUNTZA  
LORAZAINTZAKO  
MANTENIMENDUA ORO HAR  
LANDARE-BIRSORKUNTZA  
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



## ETXEBIZITZAK

- **Etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten.** Merke eta ona. Tfnoa: 79 21 09 Aitor.
- **Laredon apartamentua alokatzen da uztailen.** Hondartza ondoan dago. Tfnoa: 79 52 80.
- **Uribe auzoan lokala alokagai.** Dei egin goizez 79 84 37 tfnora.
- **Etxea salgai.** Terraza, garajea eta ganbara ditu. Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- **Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da prezio onean.** Tfnoa: 79 45 74.
- **Bi oheko logela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Urte baterako pisua alokatu nahi dugu.** Dei egin Getatik 10etara 77 02 42 tfnora.
- **Munar auzoan pertsona bat behar da pisua osatzeko,** bere gela edukiko luke. Pasatu eguardian edo gauzez Munarreko Aragoi kaleko 4, 5. eskuma.tik.
- **Uztailen eta abuztuan buhardila alokatzen da Zarautzen.** Tfnoa: 13 07 80

## LANA

- **Marrazketako klase partikularrak behar dira** F1 mailakoa (erdaraz). Tfnoa: 79 24 33. Ander.
- **Marrazketa diedrikoko klase partikularrak hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 79 04.
- **Marrazketa linealeko klaseak emateko** norbait behar dut. Tfnoa: 79 72 47.
- **Emakume euskalduna umeak zaindu,** etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Frantsesezko klase partikularrak behar dira.** Dei egin 8,30etatik aurrera 79 09 24 tfnora.

- **Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu.** Tfnoa: 79 15 56.
- **Hiru pertsonari gitarra erakusteko norbait behar dugu uztailen.** Tfnoa: 79 84 81. Rebeka.
- **Emakumea etxeko lanak egin, eskailerak garbitu edo umeak edo nagusiak zaintzeko gertu dago.** Dei egin goizeko 9.30etatik aurrera 77 04 60 tfnora. Margarita.
- **Arrasaten klase partikularrak emango nituzke.** Matematika, fisika eta teknologia. OHO eta REM mailakoa. Uztailen. Tfnoa: 79 42 70. Esteban.
- **Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko** euskaraz dakien emakumea behar da. Gasteizen egingo luke lana. Ondo ordainduko nioke. Dei egin 72 39 73 tfnora.
- **Klase partikularrak ematen dira ekaina, uztaila eta abuztuan.** Euskaraz edo erdaraz. Goizez eta arratsaldez. Ingelesa ere bai. Tfnoa: 79 93 03.
- **Zortzigarren mailara arte edo euskarazko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 39 23.
- **Esperientziadun neska abuztuan harategian edo urdaitegian lan egiteko prest.** Dei egin 3ak aurretik 79 97 52 tfnora.

## SALEROSKETAK

- **Egurrezko Ferreki markako 24.000 kaloriako berogailua salgai.** Tfnoa: 78 10 41.
- **Bi gela bikoitzeko kanping-denda salgai egoera onean.** Abanze handiz, pasilo eta guzti. Prezio onean. Dei egin 8etatik 10etara 79 56 06 tfnora.
- **Allure modeloko Alpen Kreuzer karro-denda salgai.** Gutxitan erabilitakoa. Tfnoa: 79 80 85.
- **Trikitixa soinua erosi nahi dut.** Merke bada, hobeto. Tfnoa: 79 12 00. Agurte.

- **Salbat labea, arkoizozgailua eta izozkien bitrina salgai.** Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- **DENON markako bi moduloko amplifikadorea eta 2x200 W irteera analogiko eta digitalak salgai.** Dena oso prezio onean. Ez galdu aukera!! Tfnoa: 79 47 90. Javi.
- **Renault 4 zuri eder bat salgai.** Egoera onean dago eta gainera merke. Dei egin 94 - 475 33 86 tfnora. Ikusi, asteburutan ikus dezakezu. Aprobetxatu!
- **Honda PX-R salgai. 56.000 PTAtan.** Irailera arte badu segurua. Tfnoa: 79 26 16.
- **Erabili gabeko erantzule automatikoa salgai.** Prezio ona. Tfnoa: 77 03 69.
- **McKinley markako kanping-denda familiarra salgai.** Tfnoa: 79 45 39. Edurnegatik galdetu.
- **Klarinete berri-berria salgai.** Tfnoa: 79 34 79.

## DENETARIK

- **Ezkontzako urrezko eraztuna aurkitu dut.** Zurea bada dei egin 79 83 43 tfnora.
- **Duela bi aste perladun urrezko belarririkoa galdu nituen.** Topatu badituzu dei egin gaueko 10etan 79 21 03 tfnora.
- **Giltza batzuk galdu dira Bedoñako bidegurutzean.** 6-7 giltza bi llaiberorekin, bata kilometrotakoa eta bestea botilak zabaltzekoa. Tfnoa: 79 15 96.
- **Larunbata 23an Eskoriatzatik Arrasatera auto-stoppean** etortzean kiroletarako erropak autoan utzi zenituen mutiko horri: Etorri bila Arrasate Pressera.
- **Ordulari bat aurkitu nuen Zigarrolako jaietan.** Galdu duenak dei dezala 79 26 17 tfnoa.
- **Markel Lopez de Bergara:** 7 urte betetzean tia eta amaren partez zorionak.



**ARRASATEN  
HILDAKOAK**



**Pilar Inda Errasti,**  
ekainaren 2an. 77 urte.

**Mari Luz Gonzalez Mena,**  
ekainaren 3an. 48 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK  
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA  
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: .....

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE**


**Tfnoa: 77 08 15**



# Zer nahiago?

## Jorge Oiarbide Gorosti jatetxekoa

- Ozpina ala limoia? Ozpina.
- Haragia ala arraina? Niretzat arraina hobe.
- Lehengo dantzalekuak ala oraingoak? Bat ere ez, ez zaizkit gustatzen eta.
- Garagardoa botilakoa ala kupelakoa? Kupelakoa, dudarik gabe.
- Sokazko eskumuturrekoa ala urrezkoa? Niretzat bat ere ez.
- Autore berrien liburuak ala betikoenak? Egia esan ez dut asko irakurtzen eta autoreak ez ditut ezagutzen.
- Akupuntura sinisten? Ez, ez dut sekula probatu gainera.
- Berakata ala kipula? Berakata.
- Horoskopoa irakurtzen duzu? Irakurri bai, irakurtzen dut, baina ez dut sinisten.
- Bideokamara ala argazkikamara? Bideokamarak.
- Janarrietan belarrik? Ehizazko haragietan bai, bestela ez.
- Arrozezko ala berdurazko odolosteak? Berdurazkoak.
- Gidari ona zara? Nik uste dut baietz.
- Kanpoko itxura ala barruko nortasuna? Ezagutzen ditudan pertsonetan, barruko nortasuna.
- Presioko lapikoa ala bestelakoa? Presiokoak ez ditut erabili ere egiten. Besteak askoz hobeak dira.
- Herriko jaiak ala San Ferminak? Herriko jaiak.
- Ehiztarien alde ala kontra? Kontra. Beno bai, uste dut kontra nagoela.
- Euskal abeslari bat? Niko Etxart.
- Bartzelonako Olinpiadak ala Sevillako Expoa? Olinpiadak.
- Janari berriak probatzeko prest? Bai, gainera kanpora joaten naizenean beti egiten dut hori.
- Txikitako argazkiak gordetzen dituzu? Bai, batzuk bai.




## Bertsotan

### Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala eta Araba Euskaraz

1  
Igande hontan bertsolaritza ez da sentituko hila gazte ugari joango dira txapel handiaren bila bizkaitar eta giputz artean badira istilu pila guztiek ere egingo dute horrenbeste marabilla irtetzen dena euskararentzat mesede izan dadila.

2  
Hortaz gainera "Araba Euskaraz" nolako egun polita Armentiarri euskaldun denok egin beharko bisita gure hizkuntza lagunaren faltan dagoela ikusita, ez al daduka halako jai bat guztiz ondo merezita? iganderako jarri dezagun beraren aldeko zita.

AINHOA AGIRREAZALDEGI



## MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde, 23-2. Ezk.  
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90





1943. San Jose eskola

**O**

rain San Viator Ikastetxea dena, San Jose bezala ezagutu zuten duela urte batzuk

han ibili ziren ikasleek. Hala esan digute behinik behin, aste honetako erretratua komentatu diguten lagunek. 1943ko argazkia dugu. Garai hartan

**Domingo Arzamendi** zen Mondragoeko alkate eta gurasoek eskolan erlijioa ematea eskatzen zutela eta, berak ekarri ei zituen fraileak herrira. Lehen erlijiosoa **Aita Evaristo Espartza** izan zen, 1937an, gerra garaian, beraz. Batxilergoko bigarren taldea osatzen zuten mutiko hauek, goiko iladan zutik, ezkerretik hasita: **Jose Mari Kortabarría, Luis Maidagan, Joxe Mari Mendizabal, Juanito Arzamendi, Karmelo Eriz,**

**Jose Luis Aranzabal "Kanuto", eta Roman Balanzategi.** Erdian berriz, **Roberto Aranzabal** ezkerrekoa eta **Jesus San Pedro** eskumakoa. Behean **Jose Luis Alonso, Alberto Ubago** dentista, **Enrike Maidagan** eta **Pedro Ugarte.**

Talde honetatik irten zuen geroago Zerrajerako "Escuela de Apresdices" izango zeneko ikasleak eta baita Ulgorreko hasierakoak ere.

## LETE Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabiloia

- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19

## Begoña Iurrindegia

Drogeria / Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa, Tfnoa: 79 03 73


## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerías, 23  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



# Gurutzegrama




### Horizontalak

1. Sumaketa
8. Arrasateko kalea
9. Zaratak egiten
11. Purra
12. Itsasoan ugari
13. Maite, Ugaoko abeslaria
15. Neu
16. Aitaren anaia
17. Lehena eta azkena
18. Hiru

### Bertikalak

1. Buztingintzan erabiltzen da
2. Erregelamenduz
3. Hozki
4. Ur hegazti beltza
5. Kaukaso aldean, Georgiako hiria
6. Modu
7. Susmo
10. Zintzarri
14. (Ald.) Fleming, "007" sortu zuen



JUAN BAUTISTA AGORRIA

## BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

### Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18





**Programa berezia:**  
**Mondragol**  
 Igandean 8.30etan  
 Astelehena 9.20etan

Bukatu zaigu aurtengo denboraldia eta gure Mondrak, nahiz eta asko kostata, bere sailkapenean mantentzea lortu du. Denboraldia oso ondo hasi ondoren, azkenean mailatik jeisteko arriskua ere izan du. Mondrazale guztiok, golak, jolkaldiak eta bestelako zehaztasunaz gogoratzeko programa berezia duzue igande eta astelehen honetan, ez ahaztu!

# Telebegi

**Manipulazioaz**

**Maiatzak 27:** Euskal herria greba orokor zabal batek astindu du. Kaleak hutsik daude; fabrikak, geldik. ETBk informatiboak emititzen ditu soilik; irratiek, musika programatu dute egun osoz. Greba deialdiak erabateko oihartzuna izan du. Kontuz! Mass-mediak berehala erasoan. Badirudi terrorismo sindikalaren eraginez burutu ahal izan dela. 4 piketek lortu omen dute herri osoa geldiaraztea. Greba minimizatu egin da, eta bide batez, sindikatuak, horren bultzatzaile ziren heinean, kriminalizatu. Ondorioa, denok egingenuen greba 27an baina eraberean, guztiok ikusi genuen pikete eta mehatxuaren fantasma gure erabakiaren atzean.

**Gosea:** Salto del Negron hainbat presok gose greba egin dute hilabetez. Egoera fisiko nahiko kaskarrean omen daude. Mass-mediak ez dute hitzik esan grebak iraun duen bitartean. Gose greba ez da esistitu medioetan. Kaleko zenbait kartel izan ditugu soilik, gertakizunaren lekuko.

**Masstrich:** Daniarrek ezetz esan diote erreferenduneari Europarekiko konbergentzia ekonomikoari. Sakrilegioa! Medioen makinaria berriro martxan. Daniarrek zentzugabeak dira, eta erreferenduna egin zuten garaian ez zeukaten Europak eta honekiko konbergentziak dakarrenaren informaziorik. Europa modernitatea omen da, eta Europari uko eginez gero, Kongoko herrialde marginaletuek bezela bukatuko dugu. Hori da mezua, eta Daniarrena anekdota besterik ez. Inozo eta berekoiak direla erakutsi omen dute. Kasurik ez, edo hobeto, kasu egin baina asuntoa tribunalizatu. Informazioa boterea da, eta boterea informazioak eta erabilera egokiak ematen du daniarrek. Ikusitakoak ikusita, informazio iturri asko daukagula ziurtatu daiteke baina guztiek ur bera daramatela; izan ere, ez dago ikustea nahi ez duena baino itsuagoagorik.

ANDONI URZELAI

**ATBketan**

Gure lehiaketa honetan umorea eta barreak izango dira nagusi

**Ostegunean 9.20etan**

**Ostiral Musikala**

Akordoi orkestrako protagonistak eta bideoak

**Ostirala 9.30etan.**

**Txatxaran**

Larrugorritan programa berria aurkeztuko dutenak txatxaran

**Asteazkena 9.15etan**

## Programazioa

31

**IGANDEA**

8.30etan. Programa berezia: **Mondragol**

1

**ASTELEHENA**

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Arrasateko albisteen laburpena.  
 9.20etan, **Mondra Sport**. Kirolen berri jakiteko programa ezin hobea dudarik gabe.  
 9.50. **Programa berezia:** Mondragol  
 10.50etan. **Asteko zinea:** Lauaxeta.

2

**ASTEARTEA**

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.  
 8.20. **Erreportaiak:** Hirugarren adineko olinpiadak, Zer irakurtzen da Arrasaten.  
 9.50. **Asteko zinea:** Lauaxeta.

3

**ASTEAZKENA**

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Albistegia.  
 9.15. **Txatxaran**. Asteazken honetan **Larrugorritan** programa berria aurkeztuko duten protagonistak izango ditugu gure estudioan.  
 9.50. **Asteko zinea:** Lauaxeta

4

**OSTEGUNA**

8,8.30 eta 9etan, **Berriak**.  
 9.20. **ATBketan**. Umorea eta barreak nagusi, eta Anne Igartiburu guztia zuzentzen.  
 9.50. **Asteko zinea:** Lauaxeta.

5

**OSTIRALA**

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Egunero albistek ezagutzeko albistegia.  
 9.30. **Ostiral musikala**. Akordeoi orkestra izango da aztergai.  
 9.50. **Asteko zinea:** Lauaxeta.



AKADEMIA

**BASTIDA**

INEMEK HOMOLOGATUTAKO ZENTRUA

Ferrerias, 44 etxabea  
20.500 Arrasate  
Tfnoak: 79 32 16  
79 77 13

## 1992 UDAKO IKASTARO TRINKOAK

### GESTIO INFORMATIKA

- Datu Basearen sarkura
- Orri elektronikoa Lotus 1-2-3
- Testuen tratamendua WP. 5.1
- Windows

### PROGRAMAZIO INFORMATIKA

- Datu basearen programaketa
- Basic
- Cobol
- Pascal

### KONTABILITATE ORDENAGAILUZ

- Kontabilitate egitamu orokorra
- Kalku metodoa eta mekanizazioa

### MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ

- Hasiera
- Perfezionamendua
- Errekuperaketak

### TAKIGRAFIA

- Singh end sound metodoa
- Silabadun sistema

### KLASE BEREIZGARRIAK

- OHO, BI, LH, EII, Ingenieritza Teknikoa, Euskarazko Klaseak

### MERKATAL KORRESPONDENTZIA EUSKARAZ

- Harremanak euskaraz izateko
- Adminintraioarekin erlazionatutako guztia
- Entitate publiko, enpresari e.a. zuzendua
- Udaletxeko oposaketa gertaketa

Hasiera uztailak 1- Amaiera uztailak 28  
2 ordu egunero - 40 ordu

Eusko Jaurlaritzako Irakaskuntza Artekartzaren Saileko Baimena 1841

## INGELESERAKO ATEA



**DEGURIXAN  
KANPAMENDUA**  
Ingeles intentsiboa  
2 astetan

- 60-75 eskola ordu
- 15-20 ordu zaldiz.
- Pentsio osoa
- Prezioa: 69.000 PTA
- Plaza mugatuak 20 lagunentzat

**Egunak:** ekainaren 29tik uztailaren 10era  
Uztailaren 13tik uztailaren 24era

**Oharra:** Kanpamenduarekin telefonoz  
harremanetan jartzeko modua,  
istripu-asegurua, etab.

Tfnoa: **79 90 36** eta **76 30 01**

Uztailean baita zentruan ikastaro trinkoa ere.

THE DOOR TO

LA PUERTA AL

